

2017KO MAIATZAREN 22AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2017KO OTSAILAREN 6KO, OTSAILAREN 20KO, MARTXOAREN 20KO, APIRILAREN 3KO ETA MAIATZAREN 2KO BILKUREN AKTAK).

2.- 2017 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA EGOKITZEA ETA LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONARTZEA.

3.- BAKE EPAITEGIKO IDAZKARIAREN IZENDAPENARI BURUZKO ERABAKIA.

4.- BAKE EPAITEGIKO IDAZKARITZAREN ELKARTZEA BIDERATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

5.- ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIAREN BARNEAN AMER SPORTS ENPRESAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA.

6.- ZEGAMAKO UDALA ETA HAZI FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

7.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDAN JASOTAKO DATUEN KONSULTAN SARBIDEA EDUKITZEKO HITZARMENAREN ERANSKINA ONARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.

8.- 2/2017 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

9.- ZEGAMAKO OSTATUAREN EGOITZAK ERABILI ETA USTIATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

10.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

11.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).
Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).
Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).
Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2017KO OTSAILAREN 6KO, OTSAILAREN 20KO, MARTXOAREN 20KO, APIRILAREN 3KO ETA MAIATZAREN 2KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2017ko otsailaren 6ko, otsailaren 20ko, martxoaren 20ko, apirilaren 3ko eta maiatzaren 2ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu) adierazten du, martxoaren 20ko aktaren lehen puntuari dagokionez, (11. Eremua Olaberria II Hirigintza-Egikaritzeko Kontzertazio Hitzarmenean adostutakoaren arabera, Ormazpei S.L. enpresarekin trukatzeko bideratzeari buruzkoa), aurreko legealdian hartutako akordioen gauzatzea zela iritziz eta adieraziz, abstentzioa adierazi zutela, eta ez, aldeko iritzia. Zuzenketa bideratzea onartzen da.

Ez da bestelako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- 2017 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA EGOKITZEA ETA LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONARTZEA.

Alkateak adierazten du, Udal honetako administrariaren lanpostua hutsik geratu ondoren, eta berriz ere eginkizun horiek betetzeko, lanpostu honen azterketa burutu dela, lanpostuaren izena eta hizkuntza eskakizuna egokituz.

Horrenbestez plantila organikoa eta lanpostuaren zerrendaren aldaketaren berri ematen da.

Era berean, 2017rako Zegamako Udalaren Lan Eskaintza Publikoaren azalpena egiten da, "baliabide publiko, pertsonala eta kontuan administraría" lanpostua betetzeko helburua duena.

Hauek aztertu eta eztabaidatu ondoren, Toki Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehenengoa.- Erabaki honi erantsita doan Zegamako Udaleko 2017ko Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

LANPOSTUAREN PUESTO	IZENA/ DENOMINACIÓN DEL	LANPOSTU KOPURUA/ NÚMERO DE PUESTOS	TALDEA/ GRUPO (1)	EGOERA/ SITUACIÓN
	IZAERA NAZIONALEKO GAITASUN ESKALA/ FUNCIONARIOS DE HABILITACIÓN NACIONAL Idazkari-Kontuhartzailetzako azpieskala/ Subescala de Secretarios-Interventores			
	IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA/ SECRETARIO/A-INTERVENTOR/A	1	B	H-V
	ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL Administrarien Azpieskala/ Subescala Administrativa			
	BALIABIDE PUBLIKO, PERTSONALA ETA KONTUEN ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO/A DE GESTIÓN DE LOS RECURSOS PÚBLICOS, PERSONAL Y CUENTAS	1	C	H-V

B) LAN LEGEPEKO LANGILEEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL

LANPOSTUAREN DENOMINACIÓN DEL PUESTO	IZENA/	Lanpostu kopurua/ Número de puestos	Lanbide maila/ Categoría profesional	Taldea / Grupo (1)	Egoera/ Situación
Euskara eta Kultura teknikaria / Técnico/a de Euskara y Cultura		1	2	B	F
Zeregin Anitzetako Ofiziala/ Oficial de cometidos múltiples		1	9	D	F
Gizarte Laguntzailea/ Asistente/a Social		1	2	B	H-V
Liburuzaina/ Bibliotecario/a		1	7	C	H-V

(1) 6/89 Legeko 43. Atala/ Art. 43 de la Ley 6/89.

EGOERA-SITUACIÓN
 J-P: Jabea-Propiedad
 F: Finkoa -Fijo
 H-V: Hutsik-Vacante

2017. URTERAKO UDAL HONETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Ordena zenbakia Nº de orden	Izena Denominac.	Lanpostu kopurua	Taldea/Grupo	Lanpostu mota Tipo de puesto	Homikuntza era Forma de	EUF/LEBA maila Nivel/ARCEPAFF	Ordainketa Osagarriak Retribuciones Complementarias		Dedikazioa Dedicación	Bulegoa Dependencia	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak Requisitos exigidos para su desempeño						Berriazko merizimenduak
							Dest. Osag. Maila, Dekretu Nivel	Osagari espezifiko Complemento específico			Adskripzioa Adscripción			Hizkuntz eskakiz. Perfil lingüístico		Exijituta ko titulazio a Titulaci ón exigida	
Taldea/Grupo	Lanpostu mota Tipo de puesto	Homikuntza era Forma de	EUF/LEBA maila Nivel/ARCEPAFF	Dest. Osag. Maila, Dekretu Nivel	Osagari espezifiko Complemento específico	Dedikazioa Dedicación	Bulegoa Dependencia	Taldea edo eskala	Azpieskala Subescala	Klasea Clase	Koefizientea Coeficiente	Deirigortasun data Fecha de	Exijituta ko titulazio a Titulaci ón exigida				
KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATURIKO LANPOSTUAK																	
1	Idazkari-Kontuhartzailea	1	B	S	C	19	24	15329,40	100	I-K	GN	IK	3	4	96-10-30	Z/PZS/E E. Dp	(1)
2	Baliabide publiko, personala eta kontuen administraria	1	C	N	C	13	18	12.756,96	100	I-K	AO	AA	-	3	17-05-09	GB	
PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA																	
1	Secretario-Interventor	1	B	S	C	19	24	15.329,40	100	S-I	HN	SI	3	4	30-10-96	Dp.D/C PS/EE	(2)
2	Administratiboa de gestión de los recursos públicos, personal y cuentas	1	C	N	C	13	18	12.756,96	100	SI	AG	AA	-	3	09-05-17	BS	

Ordena zenbakia Nº de orden	Izena Denominación	Lanpostu kopurua Nº de puestos	Taldea/Grupo	Kategoria profesionala Categoría profesional	EUF/LEBA maila Nivel/ARCEPAFF	Ordainketa Osagarriak Retribuciones Complementarias		Dedikazioa Dedicación	Bulegoa Dependencia	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak Requisitos exigidos para su desempeño						Berriazko merizimenduak
						Dest. Osag. Maila, Dekretu Nivel	Osagari espezifiko Complemento específico			Adskripzioa Adscripción			Hizkuntz eskakizuna Perfil lingüístico		Exijituta ko titulazio a Titulaci ón exigida	
Taldea/Grupo	Lanpostu mota Tipo de puesto	Homikuntza era Forma de	EUF/LEBA maila Nivel/ARCEPAFF	Dest. Osag. Maila, Dekretu Nivel	Osagari espezifiko Complemento específico	Dedikazioa Dedicación	Bulegoa Dependencia	Taldea edo eskala	Azpieskala Subescala	Klasea Clase	Koefizientea Coeficiente	Deirigortasun data Fecha de preceptividad	Exijituta ko titulazio a Titulaci ón exigida			

LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

1	Euskara eta Kultura. Tek.	1	B	2	16	21	12.858,48	100	-		4 T.G.	94-12-31	D
2	Zeregin anitzetako ofiziala	1	D	9	10	15	11.757,60	100	%25	%2	2	00-12-31	EG/B1 GB
3	Gizarte laguntzailea	1	B	2	14	19	4.787,40	43,99	-		3	01-01-01	Dp. T.S.
4	Liburuzaina	1	C	7	9	14	2.616,24	27,76			3	02-05-06	GB

PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL

1	Técnico de Euskera y Cultura	1	B	2	16	21	12.858,48	100	-		4.T.P	31-12-94	D
2	Oficial de Cometidos Múltiples	1	D	9	10	15	11.757,60	100	%25	%2	2	31-12-00	GE/CC B1
3	Asistente Social	1	B	2	14	19	4.787,40	43,99	-		3	01-01-01	G.L. Dp.
4	Bibliotecario/a	1	C	7	9	14	2.616,24	27,76			3	02-05-06	BS

(1)
- Berariazko merezimenduak.

1.- Eginiko zerbitzuak:

* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkartearen barruan: 0,020 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).

* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpo: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).

* Herri-Administrazioan Administrazio Orokorreko Teknikari gisa edo antzeko lanposturen batean eginiko zerbitzuak: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,06 puntu gehienez).

2.- Prestakuntza-ikastaroak:

* HAAE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-kontuhartzaitzarekin zerikusia duten gaiet buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,10 puntu (0,30 puntu gehienez).

* HAAE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-administrazioarekin zerikusia duen beste edozein gaiet buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,05 puntu (0,20 puntu gehienez).

3.- Titulazioak:

* Zuzenbideko edo Ekonomi eta Enpresa Zientzietako dokortze titulua izatea: 0,5 puntu.

- Berariazko merezimenduak egiaztatze modua:

* Eginiko zerbitzuak egin direneko udal-korporazioako idazkariak emandako jatorrizko ziurtapen bidez egiaztatuko dira.

* Ikastaroak, kasuak kasu, HAAEko edo eskola ofizialeko funtzionarioak edo agintariak emandako jatorrizko ziurtagiriak aurkeztuz egiaztatuko dira.

* Unibertsitate-titulua izatea, behar bezala konpultsatutako jatorrizko agirien bidez.

Bigarrena.- Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekeelarik.

Hirugarrena.- Behin betikoz onartu ondoren, bi dokumentuak, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Laugarrena.- 2017rako Zegamako Udalaren Lan Eskaintza Publikoa onartzea.

2017RAKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIOA

Izena: Baliabide publiko, pertsonala eta kontuen Administraria.

Dotazioa: 1.

Izaera: Funtzionarioa.

Taldea: C 1.

Eskala: Administrazio Orokorra.

Azpieskala: Administraria.

Titulazioa: Batxillergoa, Lanbide Heziketako Teknikaria edo indarrean dagoen araudiaren arabera hauen baliokide diren titulazioak.

Hizkuntza eskakizuna: 3, 2017-05-09 derrigortasun datarekin.

Maila: D.O. 18.

Dedikazioa: Osoa.

Bosgarrena.- Aipatu Lan Eskaintza (lehenengo akordioko Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa izapidetu ondoren) Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, eta bere laburpen bat *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian*, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 1989/6 Legeko 24. artikuluan, azaroaren 7ko 1997/16Legeak emandako idazkerarekin, xedatutakoa betez.

3.- BAKE EPAITEGIKO IDAZKARIAREN IZENDAPENARI BURUZKO ERABAKIA.

Zegamako Bake Epaitegiko Idazkari titularra eta ordezkoa betetzeko bideratu den espedientea ikusirik.

Kontuan izanik idazkaritza horren gaurko titularrak, Arantxa Gorrotxategi Idiakez andereak, Zegamako Udaleko zerbitzuan dagoen funtzionarioak, kargua uzteko eskaera idatzia aurkeztu duela, 2017ko apirilaren 29ko datarekin, egun horretan ere Zegamako langilea izateari utzi diolako aurretiazko jubilazio arrazoiengatik.

Bake justiziari buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuak bere II. Kapituluaren adierazten duenaren arabera, Udalak kargu hori betetzeko pertsona egokia izendatu behar du.

Udaleko langilegoaren egoera ikusirik eta izendapen aukerak aztertu ondoren, bideragarria iritzi da, eta honela adostu da izendatzea proposatzen den pertsonarekin, Ainara Esnaola Ormaetxea anderea (72.449.300J NA), Zegamako Bake Epaitegiko idazkari titular bezala izendatzea, pertsona honek eskatutako gaitasuna duelako eta baldintzak betetzen dituelako kargu hori hartzeko.

Era berean, Oihana Zubizarreta Otaegui anderea, (44.166.976F NA) Zegamako Bake Epaitegiko ordezkari idazkaria izendatzea, pertsona honek eskatutako gaitasuna duelako eta baldintzak betetzen dituelako kargu hori hartzeko.

Horretarako eman den txosten teknikoa ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko bost kideen eta EH Bildu taldeko lau kideen aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Aurkeztutako uko egite idatzia aurkeztuz, Zegamako Bake Epaitegiko Idazkari

fitular eta ordezeko bezala, hurrenez hurren, Ainara Esnaola Ormaechea (72.449.300J NA) eta Oihana Zubizarreta Otaegui (44.166.976F NA) izendatzea.

Bigarrena.- Uko egite proposamena eta izendapena, Justizia Administrazioarekiko harremanetan aginpidea duen Zuzendaritzari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Idatzi hau doakienei jakinaraztea.

4.- BAKE EPAITEGIKO IDAZKARITZAREN ELKARTZEA BIDERATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Indarrean dagoen legediak Euskal Autonomia Erkidegoari eskumena ematen dio bake epaitegien idazkaritzen elkarteak sustatzeko eta onartzeko, Mugaketa eta Ezarpen Judizialari buruzko abenduaren 28ko 38/1988 Legearen 50. artikuluan agindutakoarekin bat etorritz.

Bake epaitegiek langile gutxi dituzte, eta, gainera, langileok ez dute behar den moduko prestakuntzarik. Arazo hori konpontzeko legezko baliabiderik egokiena idazkaritzen elkarteak dira. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak elkarte horien sortzea bultzatu zuen eta, horretarako, Justizi Administrazioaren zerbitzura funtzionarioak atxikitzeko eta plantilak finkatzeko ahalmenak erabili ditu, beharrezko gertatu den kasuetan.

Ondoren, Bake Epaitegietako Justiziarik buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuak (1999ko urtarrilaren 20ko EHAA, 13. zka.) erantzuna eman zion Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bake epaitegietako justiziaren egoerari eskaintzen dion arreta berezi eta gero eta handiagoari. Ildo horretatik, egoera hori hobetzeko, prozedura uniformea ezarri zen interesatuei kasuan kasu aplikatu daitezkeen arautegia jakinarazteko.

Gabiria, Segura eta Zegamako Udalek idazkaritzen elkarteak, udalerririk osatua, eratzeko borondatea dute, eta zentzu horretan, adierazitako araudian ezarritako prozedura jarraituz, dagokion elkartzeko eskaera bideratzea adostu da.

Ondorio horietarako, Zegamako Udaltzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Eusko Jaurlaritzako aginpidea duen Lan eta Justizia Departamentuari Gabiria, Segura eta Zegamako udalerririk osatua, Bake Epaitegietako idazkaritzen elkarteak eskatzea, espedientean jasotako txostena onartuz, non proposamenaren justifikazioa jasotzen den.

Bigarrena.- Erabaki hau, adierazitako txostenarekin batera, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Departamentuari jakinaraztea.

5.- ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIAREN BARNEAN AMER SPORTS ENPRESAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA.

Alkateak, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren antolaketan Amer Sports Spain S.A.U. etxearekin (Salomon markaren komertzializazioa egiten duena) 2017-2018-2019 urteetarako adostutako hitzarmenaren berri ematen du.

Hitzarmenaren xedeak, helburuak eta bi aldeek betebeharrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udaltzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren antolaketa Amer Sports Spain S.A.U etxearekin 2017-2018-2019 urteetarako adostutako hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Udal honetako Alkate-Lehendakariari adierazitako hitzarmena sinatzeko aginpidea ematea.

6.- ZEGAMAKO UDALA ETA HAZI FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Alkateak, Zegama-Aizkorri Maratoiaren barnean, Zegamako Udala eta Hazi Fundazioaren arteko hitzarmena azaltzen du, hau onartzea proposatzen delarik

Hitzarmenaren helburuak, xedeak eta betebeharrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Zegamako Udalaren eta Hazi Fundazioaren artean hitzarmena sinatzea onartzea.

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Zegamako Udalaren izenean eta ordezkarietan sinatzea.

.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDAN JASOTAKO DATUEN KONTSULTAN SARBIDEA EDUKITZEKO HITZARMENAREN ERANSKINA ONARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Ogasun eta Finantza Departamentuak udalek GFAk dituen legezko ordezkarien erroldako datuetara sarbidea ahalbidetzeko hitzarmenaren eranskina onartu du.

Illo horretan, martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduaren bitartez legezko ordezkarien errolda arautzen zuen Foru Agindua aldatu da errolda hori Gipuzkoako udalek erabiltzeko aukera izan dezaten.

Horretarako, aipatutako Foru Aginduak, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren hitzarmenaren eranskin berri bat onartzen du, hain zuzen, D-7 eranskina "Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta" izenekoa.

Horiek horrela, Zegamako Udalak, legezko ordezkarien erroldako datuak kontsultatzeko aukera onartzen du, eta horrenbestez, adierazitako agiriaren onarpena bideratzea proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko bost kideen eta EH Bildu taldeko lau kideen aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren hitzarmenaren eranskina, hain zuzen, D-7 eranskina "Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta" izenekoa onartzea, jarraian adierazten denaren arabera:

“ D-7 ERANSKINA.- Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

1. Deskripzioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

2.- Informazio lagapenaren helburua.

Ordezkaritza egiaztatzea hirugarren pertsonen izenean egiten diren jarduketan.

3.-Arau oinarria.

Bai administrazio prozedurari buruzko araudiak bai araudi tributarioak ordezkartzaren egiaztapena eskatzen dute hirugarren pertsonen izenean jarduteko.

4.- Datuen titularraren baimena.

Ez da beharrezkoa. Izan ere, eranskin honetan arautzen den informazioaren lagapenerako, interesdunaren baimena ez da bete beharreko eskakizuna lagapena aurreikusita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 6. artikuluan.

5.- Eman beharreko informazioaren edukia.

Udal hartzaileak kontsultatu ahalko du Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuak.

6.- Informazio lagapenerako prozedura.

Informazio lagapena bi alderditik egingo da:

- a) Atzipena udalaren zerbitzu telematikoen ataritik: Legezko ordezkartzaren bat duen pertsonak ordezkatzaren duen pertsonaren izenean baliabide elektronikoaren bitartez jardutea nahi izango balu, udal aplikazioak ordezkartza baliozkotu du ordezkarien erroldan dagokion kontsulta eginez.
- b) Udal langileen atzipena: Udal hartzaileak izendatutako langileek legezko ordezkarien erroldan atzitu ahalko dute, oinarriko kontsulta profilekin, zerbitzari seguru batean horretarako berariaz prestatutako zerbitzua erabilita. Sistemak baimendutako erabiltzaileen autentifikazioa eskatuko du betiere, eta komunikazio segurua eta j datuen osotasuna eta konfidentziasuna bermatuko ditu.

Horrek guztiak ez du eragotziko beste bideren bat ezartzeko aukera, kasu jakin batean eraginkorrago eta komenigarriago dela iritzita, betiere hein berean segurua bada, eta horretarako eskuragarri eta baliagarria bada.

7.- Lagapenaren aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsonen kopurua.

Kontsulten aldizkakotasuna iraunkorra eta etengabea izango da, udal hartzailearen beharren arabera.

Ezin da eragingo duen pertsonen kopurua zehaztu, kontsulten zenbatekoa baliabide elektronikoaren erabiltzaileen eta horiek legezko ordezkartza erregistratuta duten ala ez menpe baitago.

8.- Emandako datuak hirugarren bati lagatzeko aurreikuspena.

Ez

9.- Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa.

Igor Alustiza San Vicente (44.127.889C) Idazkari-Kontuhartzailea (idezakaria@zegama.eus).

Erabiltzaileei alta ematea, sarbideak baimentzea eta sarbide horiek etengabe eguneratu eta egokitzea, udal hartzailearen organo arduradunak (edo bestela, IZFEk) egingo duen zeregina izango da, Ogasun eta Finantza Departamentuak gainbegiratzeko duen aukera baztertu gabe.

Nolanahi ere, sarrera kudeaketaren arduradunak erabiltzaileei pertsonalki informatuko die informazioa atzitzearen ondorioz berari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunaren inguruan.

Udal hartzaileak erantzungo du bere erabiltzaileek legeko erroldaren datuei ematen dieten erabileragatik, eta, zehazki, haiek eskuratzen dituzten datuen proportzionaltasun, egokitasun eta bidezkeriaz.

10.- Solaskideak.

Zuzenbideko gaietarako: Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / Igor Alustiza San Vicente (44.127.889C) Idazkari-Kontuhartzailea (idezakaria@zegama.eus).

Informatika gaietarako: IZFE, SA / Igor Alustiza San Vicente (44.127.889C) Idazkari-Kontuhartzailea (idezakaria@zegama.eus).

Beste gai material batzuetarako (lagapenaren ohiko kudeaketa...): Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / Igor Alustiza San Vicente (44.127.889C) Idazkari-Kontuhartzailea (idezakaria@zegama.eus).

Bi aldeek beren gain hartzen dute eranskin honetan adierazitako datuak eguneratuak izateko ardura.

11 Bestelako eginkizunak.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren hitzarmenaren hamahirugarren klausulan jasotzen den informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko ez eskatzeko eta herritarrari ekarpen individualik egiteko ez eskatzeko konpromisoaz gain, udal hartzaileak konpromiso hauek ere hartzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraziko dio informazio lagapenean gerta daitekeen gorabeherak, teknikoak nahiz juridikoak.
- Erroldan inskribatu gabeko legeko ordezkari buruzko informazioa atzitu balu, horren berri emango dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, badagokio, ofiziozko inskripzioa egin ahal izateko.

Bigarrena.- Erabakia hau, dagozkion ondorioetarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentura bidaltzea.

8.- 2/2017 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu

gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	PERSONAL GASTUAK	1.400,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	118.844,00
6	INBERTSIO ERREALAK	80.128,95
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		200.372,95

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.800,00
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	198.572,95
GUZTIRA		200.372,95

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

9.- ZEGAMAKO OSTATUAREN EGOITZAK ERABILI ETA USTIATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak, 2015eko martxoaren 30ean egin zuen bilkuran, "Zegamako Ostatuaren zerbitzua ustiatzeko kontratua" Juan Manuel Negredo Zalacain jaunari esleitzea erabaki zuen.

Kontratazioa arautzen duen baldintzen pleguko bosgarren atalak adierazitakoaren arabera, kontratuak bi urteko iraupena izango du eta epe hori urtez urte luzatu ahal izango da, bi aldeek

horrela adierazi eta adosten badute, luzapen eta guzti, gehienez sei urtekoa izango delarik.

Bi aldeen borondatea kontratuaren luzapena bideratzea da.

Nolanahi ere, Juan Manuel Negredo Zalacain jaunarekin adostutakoaren arabera, baldintza plegu horren hamabosgarren artikuluko 1.2. atala zuzentzea ontzat iritzi da, Udalak emandako zerbitzuaren zenbait elementu fisikoen egoera azaltzen duenari buruzkoa.

Adierazitakoaren arabera eta dagokion aldaketa bideratuz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Juan Manuel Negredo Zalacain jaunarekin “Zegamako Ostatuaren zerbitzua ustiatzeko kontratua” urtebetez luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

10.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 01/0517 erabakia, maiatzaren 3koa, Ostata eta Kasinoko fakturak onartuz.
- 02/0517 erabakia, maiatzaren 3koa, administrari laguntzaile lanetarako langilea kontratatzea erabakiz.
- 03/0517 erabakia, maiatzaren 10ekoa, biztanleen erroldan bajak bideratuz.
- 04/0517 erabakia, maiatzaren 17koa, haur dinamizatzaile lanetarako onartuen zerrenda onartuz.

11.- GALDE ERANTZUNAK.

- Alkateak, maratoiaren antolakuntza dela eta zenbait lan burutzeko kontratatuko diren langileen azalpena ematen du.
- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu) paisaia planaren lana zein egoeratan dagoen galdetzen du. Alkateak, honen azalpena ematen du, burutzen ari diren lanak eta amaitzeko epearen aurreikuspena emanez.
- Olaia Elorza Iñarra zinegotziak (EH Bildu), adierazten du Hitzatik jakin dutela Foru Diputatua Zegamara etorri dela. Alkateak akatsa berea izan dela azaltzen du, bezpera arte konfirmaziorik ez zutela izan adieraziz. Zentzu honetan adierazten da, biomasa galdara eta hartzaindegiko lanak ikustera etorri zela.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortzirik eta berrogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017kok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2017.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO